

# HAZI, BARIETATE ETA TOMATEEN ETNOGRAFIA FEMINISTA EUSKAL HERRIAN: BERTAKOTASUNA, TRANSESPEZIE AHAIDETASUNA ETA TEKNOBIOPOLITIKA

**Tesiaren egilea:** Marta Barba Gassó

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

**Saila:** Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila

**Tesi-zuzendaria:** Olatz González Abrisketa

**Tesiaren laburpena:**

Etnografia hau Antropologia Feministan eta Ingurugiro Antropologian kokatzen da, eta biek bat egiten duten leku, gai eta teorietan kokatu eta sakondu nahi du. Halaber, elikaduraren antropologian eta ugalketaren eta ahaidetasunaren antropologian ere kokatzen da. Bi tomate bariatateren inguruan —bertako barietate bat eta barietate komertzial bat, hain zuzen— egindako tokian tokiko lanetik abiatuta, honako hauek aztertzen ditut: bi barietate horien historia; barietate horiek barietate bilakatzeko bidean jokoan jartzen diren aitortza-prozesuak; barietate horien inguruan dauden identifikazio-prozesuak, batez ere beti eraikiak diren bertakotasunarekin eta euskal nozioarekin zerikusia dutenak; eta barietate horien ugalketa zeharkatzen duten eta bizitzaren aniztasunari eragiten dioten ugalketa-logikak eta harremanak —ahaidetasun-harremanak, hain zuzen—. Edonola ere, etnografia hau kokatzen dut Antropozeno, Kapitalozeno edo Chthuluzeno bezalako terminoekin izendatu eta definitzen den testuinguru ekosozial globalean, zeinen ezaugarrietako bat bizitza-formen inguruko aniztasunaren galera bera den; eta ikuspegi feminista, teknobiopolitiko eta transespezie batetik hurbiltzen naiz ikergaira, «transespezie-ahaidetasuna» bezalako kontzeptuak proposatuz eta landareen ugalketara «ugalketa-koreografia» kontzeptua eramanez. Testuinguru horretan, hain zuzen, tomate horien inguruko historia koloniala eta bizitzaren kolonizazio-historiak kokatzen ditut, eta historia eta istorioetan ikusten dugu nola errotzen eta «bertakotzen» diren nekazaritzako elikagaiak; ikusten dugu nola kudeatzen, kontrolatzen eta kolonizatzen den bizitza; ikusten dugu zer tentsio agertzen diren singularizazioaren eta dibertsifikazioaren artean «tokiko» barietateak erreproduzitu eta kontserbatu nahi direnean; barietateak sortzeko bidean ugalketa-koreografia berriak eta ahaidetasun-terminoetan azter ditzakegun landareen eta pertsonen arteko lotura eta harremanak aurkitzen ditugu; eta, azkenik, ikuspegi bioteknopolitiko eta feminista batetik (bio)dibertsitateari buruz birpentsatzen laguntzen digute.